

NAFAR - IZKUNTZAN ORRIA

GURE AMA LURRA

MASKARADAK XIBEROAN



ANDEREA MASKARADETAN

Xiberoa, Euskalerrian, lurra arrigarrak degu. Naiz txiki-ena izan da euskalkietan azkena, bere barrego nortasuna aberatsa du. Ba ditu gauzak, ez daukanak beste probintzietan, adibidez, Maskaradak eta Pastoralak.

Aunamendiko tarte batean sartua degu gure Xiberoa; mendi tontorrek ugari, etxe galurrak arbelazkoak aldan, alaitasuna nabari, dantzak txorien jaurien antzekoak eta kanta ezkiak askotan bi abotetan. Xiberoa Maskaradak, Euskalerriko urtearen berrietza da gure udaberria dira: dantzarien jaurien galditza ez dirala, txirularen txori otsa, irriparra ta dala argiaren oia bezalakoak. 1972ko otsailaren 10ean zazpian IGANDEA ZALA Maskaradak, Auzurruen egokitu ziran. Erri au oso polita degu. Eliza iru mur-errek dorreakin, egi gainean, inguruan illeria, beko aldean jauregia ta ondoan enparantza. Maule'tik berealaxe sartzen da.

Goizeko amarretan Barrikadak egin zituzten, Dantza-

riak erriko agintariak agurtzera dihoaz: Dantziak agurtzen dituzte.

Dantziak bi taldetan eratuak daude: gorriak eta beltzak. Gorriak, gizon egokiak, garbi, apain ta zuzen dantzaten dira. Beltzak, traketx xamarak, ostopak ta irriparra eginaizten dute. Zamaizain'eri, enbasoa egiten diote.

Amaiketan, erriko Meza, abesti zoragarriekin eta bukaeran, dantziariak jendearen bila urbiltzen dira ta eguerdian plazara Arribada egitera. Euparantza, Mo-riak, Antzina Pika, Norro-ten kantuak ta Bazkaleta, dantziatu zuten.

Atsaldean, iruterd inguru-ruan asi ziran egitzako lanean ta Maskaradak agertzen. Lendabizi Barrikada egin zuten, gero Muñaina, danak inguruka mutil dant-zen antzera, Zamaizain er-rian zegoela ta ogeita bost dantzi inguruan biribill-lean. Ondotik, Mañe ta Matxaleña, emen jostagallu bezela Korretuak Zamaizai- na txikiratzen dute. Gero Braule Jauria; dantzaten

dira Banderaia, Txerrena, Kantineira, Gatzaina ta Zamaizaina. Irriparrizko garaia dator, bi buhaneak arlokeriak egiten eta esaten dituzte ta euskeraz ta frantsesez mintzatzen.

Txorrotzak zutik bi abotetan abestuzten dute ta gero txorrotza tresna lurrean jarri ondoren, txorrotzen ta kantatzen jarraitzen dira.

Gero igitoak (buhaneak) agertzen zaizkigu ta alkar izketan asten dira beren artean.

Ondotik Godelet dantza-kin, egitzako jauriak egiten dituzte; edontzi baten inguru-ruan anka gainean jarri arte, zaulak ta azkarak agertzen dira, Auxe da dantza lirana ta doinu alala.

Gero kaurerak zapelakin dotoz. Batek besteare, xibe-rotar euskeraz esaten diot: "Zuk nun izan zite?" Beltzak farsa bat egiten dute; parra eraginazteko gaxo ba-teri ebakuntza egiten dio sendagileak. Pitxua opera-tioa, itz auekin bukatzen du sendagileak bere lana, —sarrira obeki—.

Berrik, Godelet dantza egiten dute. Ondoren xibe-rotar kantiak bi abotetan ta azkenean jauriak inguruka, biribillan, gazteak ta za-rrak, erriko gizonak tartean sartzen direla, urratsak ematen dituzte alde batera, ostera atzera. Erriko lau gizonak pozik baterik ofu-rik dantzaten ziran. Erri baten barrena ta arnasa an-axe agertu zuten. Gero ingu-ruetako gazteentz festa ze-geon, toki gutzietan bezela. Xiberoa festa guztien pi-erra Etxahun ta Gate, txi-rrulari ta atabalerak antxe zeuden, bizitasuna emanaz.

Esan bearra degu Maska-

radetan bi eratako gizase- meak azaltzen zaizkigu; batzuek gorriak, egitzako dantzak egiten dituztenak eta beltzak irriparra eragi- nazteko. Gorriak ez dira no- lanaioak, bakoitzak bere nortasuna, jantzi berexia, bere lana ta bere zer esan naia du. Txereroak, zaldien illekin egindako erratza es- kuan daramaki. Gathuzainak egurrezko axturren antze- ko tresna bat du. Kantinie- ra, gizonzko neska, prak- ta gona motzakin, Enseina- ria, Xiberoa ikurriarekin, Zamaizain, egurrezko zaldie- ren buru antze-ko tresna- rekin ta buruan lorezko ko- roia dula. Kukullerak Za- malzainen laguntzaileak di- tugu. Kerestuak, txikirtza- lleak dira; maretxalak be- rritz perratzaleak. Oraindik, Laboraria baserritarra bere emaztearekin ta Jauna belt- zez jantzia sonberuarekin eta emaztea zuriz lurrerai- noko gonakin.

LEN izaten zan ere artza, Arkumea ta Artzaia; auek galdu ziran.

Beltzen artean ba dira: Buhaniak (igitoak), Kaute- rak, pertza konpontzaileak. Auek ontziak konpontzen dituzte, asarretzen dira, la- guntzaile berriari parra egi- ten diote ta subertit mint- zatzen dute. Txorrotzak zo- rroten dabiliz; biarno iz- kuntza mintza dira. Senda- gillea ba dago ta gaxoari ebakuntza egin ondoren bi- zia ematen dio.

Goizetik ari ta ilunaba- rrafini irauten dute Maska- radak. Zer dira?

Zer esan dezakegu itz gu- txikin? Gauza asko batean sartuak daude: erri antze- ki soila, dantzaldi berexia, irripar aldia ta abar. Batean sartuta daukagu gizaldi askotako gizonaren izakera ta bizi bidea, oso antzina-ko ga- raietatik asita gaur arte, bai tresnatu, jantzetan, izket- an, dohuetan eta abar.

Maskaradetan agertzen dizkiguten zati oien bidez egagutzen ditugu antzina-ko garaitako gizonen oiturak, pensakerak eta giroa. Maska- raden bitartez antzina-ko gizonaren usteak, gaur arte datozkigu. Orreagatik, Maska- raden esan naia ta xeeta- sunak dira, an aberatsak.

Artzaintza garaiko giza- bidea ezagutzen degu. Art- zaiak lurgintzan ari dan gi- zonari parra egiten diote, zaldia txikirtzen ta perrat- zen dualako. Artzaiak, zal- dia osorik dabilki ta gaine- ra burnizko zafarik gabe.

Lurgintza asieraren garai zar aietako bizibidearen xea- tasunak ere, nolakoak ziran jakiten ditugu, batez ere ugaritasunaren gurtzarenak. Gizona zaldizko irudiarekin ta buruan koro bat dula, zerbait garantzi audikoa esan nai du. Zaldia garai ar-

tan, goiko indarraren ezau- garria bezela agertzen da. Jainkotasunaren indarra ba lu bezela. Ezin degu aztu, Asirian ta Egipton ia beti Jainkotasuna animala gor- putza batekin agertzen di- tela ta burua gizonzkoa. Gure Zamaizainak gauza berberaren itxura dauka. Zaldia gaitzera ugaritasuna- ren ezaugarria bezela dago toki askotan artua. Kukulle- roak zaldia altxa egiten du- te, bere nortasuna denez gain azaltzeko.

Katuzainak, aitzurraren antze-ko tresnarekin, bat- zuek diote, tximistaren eza- garria dala, euria ekartzen duna ta euriaren bitartez ugaritasuna. Txererroak be- rritz, erratzen antze-ko gau- za batekin, bide garbiketa antze-ko gauza bat egiten du, jainkotasunaren aurrean egin bear dana.

Txintxarriak, gaitzak baz- tertze-ko indarra zeukata, uste zuten. Argi bide auek, geienak ez dira nereak, Vi- olet Alford andere jakintsu ta ospetsuenak baidiz.

Erdi Garaiko oiturak ere sartuak daude Maskarade- tan. Agertzen dizkiguten es- ku lan geienak, kaurerak, ontzi konpontzaileak, txo- rrotzak eta abar, arrotzen lanak ziran orduan ta beti Euskalerrian lana oiek eta gizon oien izkuntzak etzeu- den ain ondo ikusialak. Ordu- an parra egin arazteko sartu zituzten ta zerbaiten- gatik endea ezberdidekoak.

Gero, alkar izketan joan dan gizaaldiak zatiak aipat- zen, dituzte. Ta antzerkia bezela berria da, dantza za- rren ta jantzi arrigarrak oien tartean, gaurko gaiak ta iz- kuntza sartzen dituzte; al- karizketak ez dauka neurri- rik, batzuetan parra eragi- nazteko da, bestetan ikusle- kin artu eman motzetan sartzen dira; muga gabe la- na egiten dute.

Gaiek oso antzina-koak, usteak oso zarrak, dantza arrigarrak, gure mendietako kantiak ta gainera oso antzerki errikoia, erresa, soila, alala ta lasaia, Ori dana batean da Xiberoa Maskarada. Ez da nolai- ko gauza oso aberatsa bai- zik.

Auzurruko erri zoragaitz ortara joan gitan bertako dantziariak, Maskaradak egi- ten zitutela. Erri au Xi- beroan dagoen kristaueña daukagu; ortik aipat ta ze- rule asko ater da. Igande- tan atsaldero bezperak di- tuzte. Egizko kristauak ba

ditugu, baita euskaldun ja- torrak ere; kalean, aurrak, gazteak ta adinaioak danak euskeraz.

Aurten gutxinaz, amar errian egin dituzte Maska- radak ta izan da Xiberoaren berpiztea. Ortaz artu naiz. Talde egokia degu auzurru- en. Beste ba dago berriz Alzai'en, Aurten Maskara- dak ez dituzte egin bete bear bat bezela, beren nor- tasuna ta bereitasuna agertze arren baidiz. Egun ortan ikusten zan garburo Euskalerria bizi dala ta lo- zorroan zegoen Xiberoa es- natu zaigula.

Etxahun ta Gate, txirula- ri ta atabalerokin egon gi- nan. Asarre ta kezkatu zeu- den, "Nai genuke, Xiberoa dantza garbia azaldu. Ez di- ra Oldarra ta beste dantza- ri talde oienak Xiberoa dantzak eta Maskaradak. Nai degu gurea izan dedilla. Gurea guk azaldu bear de- gu. Len Rumania, Austria eta abar'era joaten giñan, Xibero'ko dantza emen ai- txiki da".

Gate'k Alzai'ko taldea prestatu du eta zion: "Egiz- ko dantza xiberoarrak ez genuke nai besteak kentziak. Gure dantza dira ta ez ge- nuke nai ebaxitiki izatea. Esan zuten emengo dantza fini zala. Ez da egie. Len baino gelago degu orain".

Berriak Xiberoa dantzei buruz eskatu ezkerro, edo zerbait galdetu ezkerro, go- go txarrez erantuzten zuten zuzendariak. Berak, xibe- roarrak, Maskaradak buruz



BUHANEAK MASKARADETAN

idaz lana bat egitekotan omen daude.

Xiberoan zerbait gertat- zen ari dala ikusi degu au- ten. Maskarada'en bitartez beren nortasuna berexia ta indartsu ortaz artu dira. Euskalerria, zerbait audia ta aberatsa ta berea dala konturatu dira.

Esan bearra ere, datorren ikastaroan, Maule'n ikasto- la irikitzekotan dabilzala. Gaur gauza aundi baten asiera... biar berriz uzta.

Guk Maskaradak ikusten zoragarriko eguna bat igar- ro genuen. Ez da arriztekoa. Dantziariak, askotan jauriak, lurra utzita goien, txintxilik

bezela zegoiten, jantziak arrigarrak dira, antzerkia irrikola, bizia; abestiak gu- re iturrietako ura bezin go- zoak; alaitasuna neurri-rik gabekoa ta garbia. Uste ga- beko gauza ikusi genuen. Iduri zuan nubit lurr- di artotz ta aspaldi-ko giza- di batean giñala. Benetan arrigarrizko gauza ta zora- garria, gure eguna. Tama- lez eta gure erruz askotan, euskaldunak artotz izaki Euskalerrian. Gainera au- ten Maskarada'en giroa iku- sita, artu gerra zerbait ga- rantzi audikoa gertatzen ari zala Xiberoan.

LATXAGA



TXERREROAK MASKARADETAN

EUSKALERRIAN BARN

Disko berriak

LIZARRAKO DULTZAI- NERUAZ izeneko disko be- rri bat arestin atara zaigu. Bere izenburuak ongi esan nahi duen bezala disko ho- nek Lizarrako Dultzainak jotako soinuak famatuak dakartzkigu grabatuak.

Dultzaina taldeak Liza- rraga aitat eta bi semeek osatzen dute. Edigsa Etxeak argitara eman du. Ifiak Beobide jaunaren ardura- pean eratu da.

Edigsa Etxe berberak be- ste euskal disko bat atara berri du: ZUBEROA izeneko disko. Disko hontan Zuberoko kantu batzuk azaltzen dira, denak herri-rik diktora eramana inork landu eta zuzendu gabean Zuberoko herri txiki bateko ardotegi batean artzainak, nekaza- riak, eta herriko beste gai- nerako jendeak afaltzen di- relarik beren kantu, bertsu, eta Zuberoko Folkloreari lagokion guztiak disko honek ekarri dizkigu.

Bi disko nauek Euskal Kulturari buruz txiki egokiak dira.

Liburu berria

Donostia LUR euskal Editorialak Etxeberri Saka- ko zenaren LAN HAUTA- TUAK izeneko liburu argi- tura eman digu. Euskal Liburu hau euskal klasiko batena da. Urtean behin LUR Editoriak euskal kla- siko baten liburu famatu bat gure eskutetan jartzen digu. Liburu hau luze xa- mar gertatu da eta bere ba- lioa LUR Editorialaren be- ste liburuena baino gares- tiago da: 100 pegeta suskri- bidoreentz eta 200 pegeta liburu dendetan saltzeko.

Beste euskal Meza bat Irueñean

Gure Artzapezpikuak eta apezek gero eta kasu gehi- a egiten diote euskerari. Ba zan ordua esan dezake- gu. Gure zori-rik beroenak ar bitate denak nere par- tetik!

Euskal meza barria igan- de eta beste guztietako arra- tsaldeko zortzi tertzetan Da- mas Apostolicas deitutako Elizan ematen da.

IKUSLE

JEAN ELISSALDE apezaren eskutitza

Gerezietaik, Buruilaren 11 an. 1960 Ustegabeko adichide jauna.

Ez naiz guti harritu atzo Pragatik Irailaren 6 eko zu- re eskutitza Gerezietaiko chokorat ethorri zaitelarik. Es- kualzaletan nork ez daki segurki Tauer'tan Norbert jaun jakintsun eta langilearen berri, bainan ez nuen den gu- tienekorik asmatzen ni bezalako langileek baten entsein- tikiari behatzen ahal ziniotela! Ikusazu beraz zer atsegi- na ukan dutan! Milesker eta miletan milesker, jauna, zure hitz maizagarriz.

Hain chuchen, atzo joan behar izan dut Gerezietaiko hegal urruneratu. Bada, mendiri kontra badugu eraikia Ama Birjinaren egoitzat bat, Garaldako Amari othoiz- kartu bat egin diot balhauniko —Garalda mendia-ren izen- na da— zure chedetarat: zure chede guzi-guzietarat.

Chahartua naiz eta nekhez izan dezaket lurrean zure ezagutzaren egiteko zorion eta ohoreki: Garaldako Amak elgarretara gaitzala zeruun...

Eta berritz ere, uestegabeko adichide jauna, miles- ker: milesker guztietan kartuena. Hemendik goiti atsegin handienarekin bar netzakke zure berriak ausartegia ez ba- naiz!

Jean Elissalde apezha

"Zerbizari"

(Karta hau Praga'ko Erakasle, euskaldun berri eta Euskaltzale on dan Norbert Tauer jaunak, baidatu digu es- kal orri hontan argitara dezagun. Esker aunitz Tauer jaun biotzez).

Europa haundiko eskualdeak

Europa hitza entzun eskasiarik ez dute, azken urte haue- tan, gure belarriak. Bagerala, eta besteaz ez; gure salmentak gora, eta gero saltzerik ez; sartzea komeni dela, eta kaltega- rri ote den... Nere haur denborako geografian itasoz mugat- ua zen hiri aldetatik Europa zaharra, eta lihorrez bestetik; muga berriak sal-erosketako esolez eginak bai dira, ez dakigu Europa geran hala ez.

Baina, Europa ez da diru kontua bakarrik: txakur go- searen ametsak bezala, pasabide ona eta serioitasuna dakar- kigu gogora. Onak gaude gu European sartzeko! esaten dugu denok, arrai usaitua sartzen ba digute dendan. Eta lantegi berriren baten gaurkotatua adierazteko "europa-mailan" da- gola esan ohi da. Ez dakit aski konturatzaren geran hala ez; zerbait haundi egosten ari zaigu Europa hitzaren inguruan. Egosi ondorean konturatuko gera gure pertzekoa zela.

GIZONA
Bildur naiz diru ta tresneri aldetik gehiago begiratzan ote den European etorkizuna, giza bide aldetik baino. Zer izango da "gizon" deitzen dugun basapisti hontak Europa berria? Tramankulu haundigoko baten txirriketako lokatza? Nortasunik gabeko artaldeak?

Aurtengo apirilaren lehenbiziko egunetik eskualdeen ja- betasunari bidea eman zaio Italian. Berri hau ez da behar hainbat zabaldu eta argitu gure artean. Etorkizunaren argi izpia izan laike erabaki garrauntzitsu hau. Europa haundiaren ametsekin nola uztartu? Eskualde txikien askatasuna ez ote da batasunaren etsai?

Eugenio Gatto da italiarren askatasun ametsa bete duen gizona. Bere esku utzi dute agintariak hogei eskualde hoien jokabide berriari dagokion guzia. Hirurogei urte ditu. Hara zer diot: "herria, jendeak, agintariengandik gertu egon eta elkarren arteko har emanak sortzea, behar beharrezkoa iku- ten da Italian. Agintaria ez da, orduan, huri buruan dagon irutikoz zerbait; auzpegi ezagun bat baidiz. Batzun eta beste- an emanak jende giroan, konfiantzan, joan daizke eta denek parte hartu dezakete".

Zapalgarri izan zaiken Europako erresuma baten etorki- zunean, bide argi argia piztu digute italiarrak. Beste euro- kideak, begi belarri han zer gerta zai daude. Ezin dugu ahaztu eskualdeen arazoak bota zuela De Gaulle. Inoiz baino biziago senditzen du gaurko munduak herrialde guzianagako begiramenak.

Europa berriaren aurpegia agertzen hasi zaigu hodei ilu- nen artean. Tresna-burnien pentsabidez ez baino, bihotz giroz eta giza-moldez abiatzen hasia de la esango nuke; eta pozik esan ere. Nortasuna ez da diruz erosten; etxea baino gehiago da gizona eta, ogia baino lehenago bizi. Eskualdeen nortasu- na zapaltzen duen Europa bat, txori gabeko ohiandea edo arrai gabeko ibai poizintzua izango litzake. Arimarik gabeko gaz- telu hotza. Askatasunaren urrezko kaiola. Hauze da, nere ustez, Europa haundiaren izenean egosten ari zaigun liziba.

J. M. SATRUSTEGI

AXULAR SARIA KONTUA

Baziren bi gizon bein batean elkar lagunak. Bat zen on- sun txarrekoa eta bertzia iduriz ona. Osasun txarreko bi- ra gan zuten operatza ospitalera eta harat allagatu eta gan zuten karo zirike duen batean kiroforanora. Medik- gaute batek eta barberuak han operatzeko lekuen emaitza ten indioz bat operatze-ko. Operatu zuten buelta batz- iretzarri zen, ikusi zuen bere guatze aintzian operatu- zuten medikue gazte hura eta galdetu zion haren:

—Hola zer nodu?
—Bai ni ongi arras.
—Sufrutuzia aunitz?
—Ez nik batre ezut sentituz, aront kontem daz Zortzi egunen buruan torri zen etxera eta galdin daz.
—Ta nola?
—O! ni arras ongi, ezut yeus naaitu.
Eta kontatu zion nola gan zuten, zer in zuten, nola kusi zuten medikue, zer in zuten eta orduen erratan dio b- gunak:

—Bai nik ere aspalditik sentitzen zerbait hementzat.
—Oyoy! zazi, zazi kuskoi zu zein ongi eta konten egu- zaren.

Egun batean gan zen operatu zuten baño irletzarren Bertziak erran zion bezala etzuen ikusi mediku gazte bi- ra, ikusi zuen bertze gizon zahar buru ta bizar eta erra- zion:

—Hautzuek asistiko mediku gazte hura.
—Eta erran zion berai:
—Zu etzera aistiko mediku hura?
—Ez ni naiz San Pedro San Pedro.

MARIA ISABEL AGIRRE, ARIZKUN, 10 urte

KONTUA

Lehen omen zen gizon bat andre ttar baten yabe eta elkarrekin pensatu zuten biar zutela merkatue gan eta andrea saldu.

Hala joan ziren bieik Elizondora. Emaitza yazi za apain apana alki baten ganean. Gizona hasi zen oyatu erratan zuen:

—Nork nai du andre ttar bat erosi? Andre ttar bi saltzeko!
Hori auita erran zion emaitzak:
—Arrayo astoa nork nai dik hola, erosten? Olatu noiz egiten du kukurruku?

—Gozurra erratan duenai,
—Eta zergatik kantatzen du goizeko hirutan?
—Periodikoak iten ai direlakotz, ordua delakotz.

MANUEL MARITORENA

AMAYUR, 12 urte